

Hondarribia.

Hondarribia izenak hondarrezko ibia esan nahi du. Txingudiko itsasadarrean kokaturik dago, Bidasoa ibaiaren ahoan, Hendaiarekin muga naturalean. "Fuenterrabia" izena hartzen du erromantzez. Alfontso VIII.ak Carta Puebla eta Donostiako Forua aitortu zizkion XIII. mendearen hasieran.

Bere lehenengo kokalekua itsasadarraren gainean zegoen altueratxo bat izan zen, lehortuak izan ziren padura eta hareatzetan. Baratzeak izan ziren lehenengo, eta presio demografikoak bultzatutako eraikuntzak estali zituen azkenik. Oraindik irauten dute antzinako izaeraren aztarnek, eta badira zenbait aintzira eta kanal eremu.

Ipar-ekialdean, Kantauriar itsasoari paralelo, Jaizkibel mendia aurkitzen da. Inguru honetan mendiak haize gogorren ekintzaren menpe dauden malda nabarmenak ditu, eta harkaitz azaleratze ugari ikus daitezke. Sortaldeko muturrean, Higer lurmuturra daukagu, herri-gunetik oso hurbil.

Jaizkibelgo itsasertz labartsuan, flora ugaria da, eta giro gazira moldaturiko espezieek osatzen dute paisaia. Esaterako Armeria euscadiensis, inguru honetako itsasertzeko espezie endemikoa.

Kostaldean badira zenbait kala eta senadi, eta higadurak erliebe ederrak zizelkatu ditu bertan. Gainera hondartza ez beti lasaieran, flysch-ak goxo orrazten ditu olatuak.

Urpean murgiltzean, korronteak eramaten dituen Gellidiun luzeen eremuak aurkitzen ditugu, mugimendu erritmikoan, arroka higatu handiei doi-doi atxikita. Anemona eta gorgonia lorategiak, arrain espezie ugairerentzat babesleku dira eta bere polipoetaz molusku mota ezberdinak elikatzen dira, euren artean nudibrankioak, maskorrik gabeko molusku talde bat. Hauetariko batzuk udaberrian eta uda hasieran soilik ikus ditzakegu.

Olagarroa, bere kolore eta forma aldaketak direla eta ez da ikusten erraza, baina ohiko animalia da mota honetako itsas hondoetan. Baita kantauriar kabuxa ere, mediterranearra baino handi eta koloretsuagoa, edo itsas kabra, ia beti itsas hondoan gelditu eta ezkutaturik.

Paneka handi talde bat, haragijale eta oso jatunak, alga artean miaketan ari da molusku eta krustazeo bila. 45 zentimetrora irits daitezkeen ale handienek arrain txikiak ere harrapatzen dituzte beraien dietaren osagai gisa.

Kaltegarria ez dirudien arren, ikaraioak deskargak ematen dituzten bi organo elektriko ditu, ehizarako zein babeserako erabiltzen dituenak. Arraiengandik bereizten duen forma zirkularra hartzen du, hondo hareatsuetan bizi da, eta arrain eta ornogabeek elikatzen da.

Harantzago, itsasoan barrena, Jaizkibelen islada ur gainean daukagula, arrainek zein ametsek bidaiatu egiten duten ozeanoa zabaltzen da.